

Ordizian, 2011ko urriaren 13an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **UDALEKO OSOKO BILKURA, EZ-OHIKO DEIALDIAN**, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre jauna.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Eduarne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	PNV taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	PNV taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	PNV taldea
Iñaki Bolinaga Alzelai jauna	PNV taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	PNV taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta. andrea

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aramburu Otegi jauna

ITZULTZAILEA:

Ezin etorria adierazi du.

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

1.- 2012ko zergak eta tasak.

.....3.orr.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK

ORDUTEGIA:

HASIERA ORDUA: 19,00

BUKAERA ORDUA: 19,40

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako lehen puntuaren berri eman du:

1.- 2012ko ekitaldirako Ordenantza Fiskalen aldaketaren hasierako onarpena.

Proposamena

Alkateak aurkeztutako proposamena, 2012rako udal tasa eta zergen gainekoa. Gaiaz eztabaidatu ondoren, Plenorako Gaien Batzordeak, 2011ko urriaren 6an egindako bilkuran eta Gipuzkoako Herri Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren arabera, honako hau onartzea proposatu zuen

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Honako hau onartzea behin-behinean 2012an aplikatzeko:

- A) UDALERRIKO ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN 1.ORDENANTZA FISKALEKO ERANSKINAREN ALDAKETA.
- B) UDALERRIAN JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN 2.ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINAREN ALDAKETA.
- C) C) TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN 3.ORDENANTZA FISKALEKO ERANSKINAREN ALDAKETA.
- D) D) ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEKO 4.ORDENANTZA FISKALAREN ERANSKINAREN ALDAKETA.
- E) E) HIRI-IZAERAKO LURSAILEN BALIOAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN 5.ORDENANTZA FISKALEKO ERANSKINAREN ALDAKETA.
- F) F) ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEAGATIKO ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN 6.ORDENANTZA FISKALEKO ERANSKINAREN ALDAKETA.
- G) G) ERABILPEN PRIBATIBO EDO HERRI JABARIAREN APROBETXAMENDU BEREZIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN 7.ORDENANTZA FISKALEKO ERANSKINAREN ALDAKETA.

- Ordenantza hori jendaurrera jarri beharko da berriro ere 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan, eta interesatuta daudenek aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunei tartea eman, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik. Erreklamaziorik ez balego, Ordenantzak behin betiko onartutzat joko lirarteke, beste erabakiren beharrik gabe.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Azaldu du gaurko bilkura ez-ohikoa dela, 2012 ekitaldirako tasak eta zergak onartzeko lege ezarritako prozedura jarraitu behar delako, hasierako onarpena behar duelako proposamenak, ondoren 30 eguneko epean jendaurreko erakusketan egon behar duelako eta osoko bilkurak onartu behar duelako ondoren alegazioak aurkezten badira. Behin betiko onartu ondoren GAOn argitatu behar da 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen, egun horretatik aurrera sartzeko indarrean.

Hori dela eta, orain onartu behar da proposamena, puntua gehiago atzeratu gabe.

Jarraian Intsausti andreak hartu du hitza.

Intsausti andrea

Neurri orokor bezala Foru Funtsaren jaitzierari aurre egiteko zerga eta tasetan KPI igoera (%3) aplikatzea proposatzen dela azaldu du.

Hala ere, bere taldeak uste du ez dutela herritarrek soilik egin behar esfortzu guztia, eta beraz, ezkerreko talde bezala esfortzua orekatzen saiatuko dira, eta gutxi dutenen alde egiten.

Honen harira, progresibotasun irizpidea proposatuko dute, gehien irabazten duenak gehiago ordaintzeko.

Gaur egungo mundu mailako eta Euskal Herriko krisi egoera honetan, langabezia tasa oso altua den egoeran, beraien ustez esfortzua ez dute herritarrek bakarrik egin behar, beraiek gainera ez baitute eragin krisi hau.

Hobarien atalean gutxien dutenen alde egingo dute.

Asenjo jn.

Hala ere, adierazi du, %3ren igoera ez dela zerga guztietan aplikatuko.

Terrazak eta mahaiak kalean jartzeko tasa igo egingo da, 60 €tik 70 €ra, eta udaldiko erabilera tasa desagertu egingo da eta bateratu egingo da, eta bakarra izango da urte osorako.

Ibietan lau eremuetatik bat kendu egingo da, erabilera honengatik tasa zatitzen zenekoa, eta hiru geratuko dira, ez baitu zentzurik Buztuntza edo Urdaneta kaleak erdigunean ibia erabiltzeagatik ordaintzen dutenaz bestelako prezioa ordaintzea, eta eremuetako bat erdigunean sartuko da.

Santamaria jna.

Aurreko ekitaldian eta Foru Funtsaren amaierako azterketari esker, tasak eta zergak izoztu ziren.

Aurten, Foru Funtsean %11ko jaitsiera izan dela eta, egokia iruditzen zaie igoera bat aplikatzea, baina igoera KPlarena soilik izan beharko lukeela uste dute.

Gainera, kide anitzeko familiei aplikatzen zaien OHZren hobaria erabat murriztailea eta gogorra iruditzen zaie, proposatzen dena kontuan izanda, 3 seme-alaba dituen eta 898 €ko diru-sarrerak dituen familia batek ez lukeelako hobaririk izango, eta 4 seme-alaba dituen eta 962 €tik gorako diru-sarrerak dituen familia batek ere ez.

Honek esan nahi du kide anitzeko familiak galtzen ateratzen direla.

PNVren apostua kide anitzeko familien fiskalitatea leuntzea edo arintzea izan zen, eta ondorioz, 3 seme-alaba zituen kide anitzeko familia batek zergaren %50eko hobaria izaten zuen eta hiru seme-alabatik gora zituen kide anitzeko familiek %75eko hobaria.

Gobernu taldeak proposatutako neurriarekin ez zaie lehentasunik ematen familia hauen ekarpenei, kontrakoa baizik, batez ere krisi egoeran.

Zaborretako tasaren %8ko igoerarekin ez dagoela konforme, hori adierazi du, Sasieta erantzuna ezagutu gabe %8 mantentzearekin ez du bat egiten, bere garaian pixkanaka igotzearen aldeko erabakia hartu baitzen.

Dubreuil jn.

Adierazi du gaur bertan egunkariak dakarrela euskal herritarrek ahalmen-galera izan dutela, azkeneko bi urteetan gertatutako kontua dela.

Bere ustez zergak eta tasak izoztu beharko lirateke eta Foru Funtsean jaitsierari aurre egiteko Udalak egin behar luke ahalegin handiagoa eta ez herritarrek. Udalak berak estutu behar du gerrikoa lehendabizi.

Zerga eta tasen igoerarekin sartuko den diruarekin ez du uste Foru Funtsean jaitsierari aurre egingo zaionik.

Beste neurri batzuk martxan jarri daitezkeela uste du, adibidez, azalera eskubidea duten etxebizitzentzako lurzorua salduz egoera orekatzen lagun dezakeen finantziarioa lor daitezkeela uste du.

Alkate jn.

Dubreuil jaunari erantzun dio esanez bere taldeak ez diola zamarik ipini nahi herritarrei, baina Udal gehienek zorpetzeko gaitasun txikia dutela, eta oreka bat bilatzea dela helburua.

Asenjo jn.

Santamaria jaunari erantzun dio esanez beraiek ez zutela onartu zabor-tasaren %8ko igoera eta PNV taldeak bazekiela zergatik igo zen portzentaia hori.

Santamaria jna.

Azaldu du bere taldeak ez duela %8ko igoera kritikatzeko, baizik eta kritikatzeko dutena da gaia ez aztertu izana Sasieta Mankomunitatekoekin.

Kontu-hartzaile jaunak

Dubreuil jaunari erantzun dio esanez BOEko etxebizitzaren salmenta inbertsioetara pasako litzatekeela eta ez gastu arruntetara.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 6 (EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.

Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.